

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Burlatako Ibaialde institutuak Euroscola 2011 lehiaketaren Nafarroako fasea irabazi du

Sanz Lehendakaria ostegun honetan zentro irabazleko ikasleei sariak emateko ekitaldiaren buru izan da

Jueves, 26 de mayo de 2011

Burlatako Ibaialde institutuak Euroscola lehiaketaren Nafarroako fasea irabazi du aurten. Zentroak lehiaketa hiru ekiporekin parte hartu du, eta sailkapeneko hiru postuak eskuratu ditu. Horrez gain, talde irabazlea bigarren gelditu da fase nazionalen, eta beraz, Estrasburgora joango da datorren ikasturtean, Europako Parlamentua ezagutzeko eta Europako Erkidegoko herrialde guztietako gazteekin batera ganberaren bilera baten simulazioa egiteko.

Miguel Sanz Nafarroako jarduneko Lehendakaria ikasle irabazleei sariak emateko ekitaldiaren buru izan da ostegun honetan. Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egin da, eta Lehendakariak gain, Álvaro Miranda bigarren presidenteordeak eta jarduneko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak; Alberto Catalán jarduneko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak eta Gobernuaren eledunak eta María Isabel Mateo Europako Parlamentuaren Espainiako Informazio Bulegoko Hezkuntza eta Gazteria arduradunak parte hartu dute.

Euroscola Europako ganberak antolatutako lehiaketa da. Hamazazpigarren edizio honetan, boluntariotzaren Europako urtearekin bat eginez, lehiaketaren gai nagusia boluntariotza izan da. Jolas interaktibo bidez, gazteak kontzientziatu nahi izan dira boluntariotzak gizartearen garapen kultural, politiko eta ekonomikoan duen garrantziaren inguruan, eta gazteei gogoeta eginarazi nahi izan zaie Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eta horietako boluntarioek egiten duten lanaren inguruan.

Lehiaketa 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta www.euro-scola.com web helbidearen bidez garatu da, bi ataletan. Lehenengo fasea otsailaren 14tik martxoaren 25era izan zen, eta parte-hartzaileek ikasgelan planteatutako gaiari buruz eztabaida egin dute eta beste ekipo batzuek gerora baloratu behar izan dituzten materialak sortu dituzte. Azken proba martxoaren 28tik apirilaren 14ra egin zen, hasierako fasean ikasitakoa berrikusi eta ebaluatzeko.



Agintariak saritutako taldeekin

Talde sarituak

Ibailde BHIko "Productos" taldeak irabazi du lehiaketa Foru Komunitatean. Taldea hurrengo hauek osatu dute: María Domeño irakasleak eta Alejandra Pérez, Camila Rovira, Elba Zapata, Pablo Garriz, Paula Elizagaray, Sergio Pérez, María Alejandra Zapata, Leyre Salvador, Aranzazu Rodríguez eta Víctor Larramendi ikasleek. Sari moduan, datorren ikasturtean Estrasburgora joango dira. Horrez gain, plaka bat eta sustapen-produktuen sorta jaso dituzte.

Bestalde, "Ibailde" taldea bigarren geratu da. Taldea hurrengo hauek osatu dute: José Javier Baile irakasleak eta Miren Isabel Ballesta, Sergio Bustingorri, Josune Ciriza, Claudia de Sola, María Flórez, David Haro, Ángela Lamberto, Lucia Oscoz, Silvia Popa, Irati Segura eta Laura Valencia ikasleek. Sari moduan, asteburuko egonaldia egingo dute Foru Komunitateko gazte-aterpetxe batean, eta plaka bat eta sustapen-produktuen sorta bat jaso dituzte.

Zentro bereko "Servicios" taldea hirugarren gelditu da. Taldea hurrengo hauek osatu dute: María Domeño irakasleak eta Jonathan Pesantez, Amaia Asurmendi, Wendy Elizabeth Ñacata, Johana Luzuriaga, Lyubomir Borislavov Trenev, Ruth Moreno, Christian Parra, Cristina Rita eta Maitane González ikasleek. Taldeak sustapen-produktuen sorta lortu du.

Nazioan, lehiaketa Europako Parlamentuaren Espainiako Bulegoak antolatu du, Europako Batzordearen Europako ordezkarezekin lankidetzan. Nafarroan, Nafarroako Gazteria Institutuak, Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak eta Nazioarteko Proiekzioarako Zuzendaritza Nagusiak ere parte hartu dute.